LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

# LAUDIOKO XII. PINTXO LEHIAKETA

**DEITZAILE ETA ANTOLATZAILEA:** Laudio Udala. Helburua: Laudio herria eta bertoko ostalaritza bultzatu eta dinamizatzea, gastronomia eta turismo arloan eredu eta erreferente bihurtzeko eta, aldi berean, dagoeneko errotuta dagoen pintxoaren kultura are gehiago sustraitzeko.

*"Elaborazio gastronomiko xumea da pintxoa, bizpahiru mokadutan erraz dastatzekoa, eskuekin jateko pentsatua. Batzuetan, jatea errazteko elementu txikiren bat erabiltzeko aukera ematen du, esaterako, zotzak edo koilara japoniarrak; izan ere, hortik datorkio izena, garai batean zotz edo ziri txiki batekin lotzen zitzaiolako janari anoa txiki bat ogi zati bati, nahiz eta hori nahitaezko ezaugarria ez izan."*

## OINARRIAK

**1. PARTE-HARTZAILEAK:** Lehiaketan parte hartu ahalko du Laudioko edozein ostalaritza-lokal edo establezimenduk, berdin diola duen kalifikazioa edo kategoria: tabernek, kafetegiek, dastalekuek, jatetxeek... Normalean bezeroentzako pintxo-barra izan behar dute eta nahitaezkoa da finkatutako epean izena ematea eta oinarri hauetan ipinitako baldintzak onartzea.

**2. DATAK:** 2019ko martxoak 8, 9, 10 eta 15, 16 eta 17. (2 asteburu).

**3. KATEGORIAK:** Kategoria bakarra egongo da: pintxo librea. (Lehiaketako kategoriak aho batez adostu dira bileran izan diren ostalarien artean).
Halaber, saria emango zaio epaimahai teknikoaren nahiz herritarren epaimahaiaren iritziz pintxo barrarik onena aurkezten duen ostalaritza establezimenduari.

Epaimahaikide teknikoek bi larunbat eta igandeetan baino ez dituzte atzertuko pintxo barrak, 12:00etatik 13:30etara.

**4. PINTXOS:** Ostalaritza-establezimenduan bertan prestatu beharko da, beraz, lehiaketako kategoria bakarra egongo da. Euren burua Pintxo barrarik onena kategoriara aurkezten duten ostalaritza-lokalek,

# XII CONCURSO DE PINCHOS DE LLODIO

**CONVOCA Y ORGANIZA:** El Ayuntamiento de Laudio/Llodio con el fin de impulsar y dinamizar Laudio/Llodio y su hostelería local con el objeto de convertirla en un referente gastronómico y turístico, a la vez que potenciar aún más la ya arraigada cultura del pincho.

*"Un pincho es una elaboración gastronómica en pequeño formato de fácil degustación, en 2 ó 3 bocados, destinada a comerse con las manos, permitiendo en ocasiones la utilización de algún pequeño utensilio que facilite su degustación, como un palillo o cuchara japonesa; de hecho recibe su nombre porque tradicionalmente se sujetaba una pequeña ración de comida al pan con un palillo, aunque no sea una característica obligatoria."*

## BASES

**1. PARTICIPANTES:** Podrá inscribirse en el Concurso cualquier local o establecimiento hostelero de Laudio/Llodio, independientemente de su calificación y/o categoría: (taberna, bar, cafetería, restaurante, etc...), que disponiendo de una barra de pinchos habitualmente las ofrezca a sus clientes, siempre que se inscriban en el plazo establecido y acepten las condiciones establecidas en las bases.

**2. FECHAS:** 8, 9, 10 y 15, 16 y 17 de marzo de 2019 (2 fines de semana)

**3. CATEGORÍAS:** Una única categoría denominada Pincho Libre. (Las categorías a concurso se han decidido por consenso de los hosteleros en reunión).
Se premiará asimismo al establecimiento hostelero que, a criterio del jurado técnico y jurado popular, presente la Mejor Barra de Pinchos.

Las barras de pinchos serán examinadas los dos sábados y domingos por el Jurado Técnico en horario de mañana de 12:00 a 13:30.

**4. PINCHOS:** Cada local puede presentar a concurso un único pincho que deberá ser elaborado en el propio establecimiento hostelero, por tanto, habrá una única categoría a concurso. Los locales que se presenten a la

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
**www.laudio.eus**
IFZ/NIF: P0103800I

antolakuntzako kideei jakinarazi beharko diete. Lehiaketara aurkeztutako pintxoak salgai egon beharko dira, jendearen eskura lehiaketak dirauen 6 egunetan, gutxienez ere, ordutegi honen barruan:

- Ostiral eta larunbatetan arratsaldez baina gutxienez 20:00etatik 22:00etara eta bi larunbatetako goizetan 12:00etatik 15:15etara. Bi igandeetan, egongo da eguerdian: 12:00etatik 15:15etara.

Pintxo guztiak behar bezala identifikatuta egon behar dira, lehiaketaren etiketa-logoaz. Izena eman duten lokalek nahitaez ipini beharko dute Laudioko XII. Pintxo Lehiaketaren kartel ofiziala ikusteko moduko leku batean, parte-hartzaile direla egiazta dadin. Parte-hartzaile guztiei doan emango zaie lehiaketako publizitate-material guztia, zigiluekin eta bozkatzeko kutxekin batera.

Ostalariek konpromisoa hartu behar dute lehiaketak eragingo duen eskariari erantzuteko moduko pintxo kopurua izateko.

PREZIOA: Pintxoen prezioa askatasun osoz finkatuko da. Parte hartzen duen establezimendu bakoitzak pintxoaren prezioaren berri emateko kartela izango du.

**5. IZENA EMATEA**: Izena ematea doan da eta instantzia baten bidez egiten da. Instantzia hori ostalariei emango zaie lehiaketaren oinarriekin batera. Instantzia argi adierazi beharko dituzte datu hauek:

- Parte hartuko duen establezimenduaren izena eta helbidea eta pintxoaren egilea.

- Pintxoaren izena eta osagaiak, argi adierazita alergenorik daukan eta edukitzekotan zehazki zein den. Horretarako, Europako Parlamentuak 2014ko abenduaren 13an emandako 1169/2011 Erregelamenduan jasotako 14 alergenoen berri ematen duen eskema emango da.

- Pintxo barrarik onenaren kategorian parte hartzen bada.
- Pintxoaren prezioa.

Mejor Barra de pinchos también deberán comunicarlo a la organización. Los pinchos presentados a concurso deberán ser expedidos y estar a disposición del público durante los 6 días que dura el Concurso, como mínimo en el siguiente horario:

- Los viernes y sábados por la tarde como mínimo de 20:00 a 22:00 y los dos sábados por la mañana de 12:00 a 15:15h. Los 2 domingos en horario de mediodía: 12:00-15:15h.

Todos los pinchos deberán estar debidamente identificados con la etiqueta-logo del Concurso. Los locales inscritos lucirán obligatoriamente y en lugar visible el cartel oficial del XII. Concurso de Pinchos de Laudio/Llodio que les acredita como participantes del mismo. La organización del Concurso facilitará a los participantes de forma gratuita todo el material publicitario, junto con los sellos y urnas.

Los hosteleros/as deberán comprometerse a tener un número suficiente de pinchos como para atender la mayor demanda que genera el Concurso.

PRECIO: Los pinchos tendrán un precio libre. Cada establecimiento participante dispondrá de un cartel informando del precio del pincho.

**5. INSCRIPCIÓN:** La inscripción es gratuita y se realizará a través de una instancia, que se facilitará a los hosteleros/as junto con las bases del Concurso, en la que deberán indicar con claridad:

- Nombre y dirección del establecimiento participante y del autor del pincho.

- El nombre del pincho y la composición del mismo, indicando si contiene algún alérgeno e identificando exactamente de cuál se trata, con este fin se les facilitará un esquema con los 14 alérgenos de los que se debe informar desde el 13 de diciembre de 2014 según Reglamento del Parlamento Europeo 1169/2011.

- Si opta a la categoría de Mejor barra de pinchos.

- El precio del pincho.

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

- Martxoaren bukaeran izango den sari-banaketara joateko konpromisoa.

-Hedabideetan errezeta eta argazkia jartzeko baimena.

Instantzia HAZn (udaletxeko beheko solairuan) edo Laudio Udalaren Garapen Agentzian, hara joanda edo eskaneatu ondoren helbide elektroniko honetara bidalita: comercio@laudio.eus. Izena emateko epea urtarrilaren 2an hasten da eta 2019ko urtarrilaren 18an bukatzen, 14:00etan.

Egun horretatik aurrera, antolatzaileek aditzera emango dizkiete parte-hartzaileei leihaketako inguruabar guztiak, besteak beste, herritarrei emango zaizkien liburuxkak prestatzeko beharrezkoak diren pintxoen argazkiak aurkezteko eguna. Argazkiak ateratzeko saioa derrigorrezkoa da parte-hartzaile guztientzat. Argazki saiora ez bertaratzeak lehiaketan parte hartzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

Halaber, parte hartzen duten ostalariek konpromisoa hartu behar dute pintxo irabazleak barran edukitzeko gutxienez 2019ko apirilaren 8ra arte.

**6. EPAIMAHAIA:**

EPAIMAHAI TEKNIKOA: Antolakuntzak gastronomiaren munduan izen handia duten pertsonez osatutako epaimahaia izendatuko du proposamen gastronomikoak aztertu eta baloratu ditzaten.

Pintxo librearen kategoriako epaimahaiaren balorazieк 20 puntura artekoak izango dira, irizpide hauen arabera:

1. Lehengaien kalitatea eta oreka: produktua, muntatzea, koloreak eta pintxoaren osaera (10 puntu). Hau da, ondo muntatuta, ondo aurkeztuta eta zaporeak ondo orekatuta egon daitezela. Zapore orokorra eta asebetetze gradua. Pintxoaren aurkezpena.
2. Pintxoaren bideragarritasuna aurkezten duen ostalaritza-establezimenduaren testuinguruan (5 puntu). Hau da, pintxoak etengabe

- Compromiso de acudir a la entrega de premios que tendrá lugar a finales de marzo.

-Autorización para la reproducción de la receta y foto en los medios de comunicación.

La instancia deberá presentarse en el SAC (planta baja del Ayto) o en la Agencia de Desarrollo Local del Ayuntamiento de Llodio, bien de forma presencial o enviándola a la siguiente dirección de correo electrónico escaneada: comercio@laudio.eus. El plazo de inscripción se inicia el 02 de enero y finaliza el 18 de enero del 2019 a las 14:00h.

A partir de esa fecha, la organización irá comunicando a los participantes todos los pormenores del Concurso, incluyendo la fecha determinada para sacar las fotografías de los pinchos necesarias para la elaboración del desplegable del concurso. La sesión de fotografía es obligatoria para los participantes. La no asistencia a la misma supondrá la pérdida al derecho a participar en el concurso.

Asimismo, los hosteleros/as participantes deberán comprometerse a tener en barra los pinchos ganadores como mínimo hasta el 8 de abril del 2019.

**6. JURADO:**

JURADO TÉCNICO: La organización designará un jurado compuesto por personas de reconocido prestigio en el campo de la gastronomía que serán quienes valoren las propuestas culinarias.

Las puntuaciones para la valoración del jurado sobre el “Pincho Libre” se hará sobre un total de 20 puntos con los siguientes criterios:

1. Calidad y equilibrio de la materia prima: producto, montaje, colorido y disposición del pincho (10 Pts). Es decir, bien montado, bien presentado, y que los sabores estén equilibrados. Sabor global y satisfacción. Presentación del pincho.
2. Viabilidad del pincho en el contexto del establecimiento hostelero que lo presenta (5 Ptos). Es decir, que la elaboración continuada

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

prestatzak ez dezala gainditu beharrezko denbora.

3. Proposamenaren berritasuna, originaltasuna eta grazia.

Pintxo barrarik onenaren kategoriako epaimahaiaren balorazioek 20 puntura artekoak izango dira, irizpide hauen arabera:

- Pintxo moten ugaritasuna.
- Pintxoen aurkezpena.
- Platerek barran kokatzeko modua.
- Zerbitzarien arta.
- Lokala.

Epaimahaiaren erabakia motibatua eta apelaezina izango da. Epaimahai teknikoaren balorazioaren emaitza sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko zaie irabazle atera diren ostalaritza-establezimenduei eta ZUINen, LED paneletan, irratian, Facebook-en eta Udalaren webgunean argitaratuko da, baita egokitzat jotzen diren bestelako komunikabideetan ere.

EPAIMAHAI HERRITARRA: Herritarrek ere euren pintxo eta barra gogokoenen alde bozkatzeko aukera izango dute; horretarako, kupoi bat bete behar dute, kupoi horretan 5 ostalaritza-establezimendu ezberdinetako 5 zigilu itsatsi eta gero; zigilu horietako bat gutxienez herriaren erdigunetik kanpoko auzo batekoa izan beharko da. Zigiluak itsatsi eta kupoia bete ondoren, parte hartzen duten establezimenduetan egongo diren kutxetako batean utzi beharko da. Foiletoetan adieraziko da herriko erdigunearen kanpoko establezimendu horiek zeintzuk diren.

Herritarren bozketaren emaitza sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko zaie irabazle atera diren ostalaritza-establezimenduei eta ZUINen, LED paneletan, irratian, Facebook-en eta Udalaren webgunean argitaratuko da, baita egokitzat jotzen diren bestelako komunikabideetan ere.

de pinchos no se exceda del tiempo necesario.

3. Novedad de la propuesta, originalidad e ingenio (5 Pts)

La valoración de la barra de Pinchos se hará sobre un total de 20 puntos con los siguientes criterios:

- Variedad de Pinchos
- Presentación de los Pinchos
- Colocación de los platos de la barra
- Atención de los camareras/os
- Local

La decisión del Jurado será motivada e inapelable. El fallo de la valoración técnica se comunicará a los establecimientos ganadores durante la entrega de premios y será publicado en el ZUIN, como en los paneles LED, Radio, Facebook, Twitter, página web del Ayto., y demás medios considerados oportunos.

JURADO POPULAR: El público podrá votar sus pinchos y barra favoritos rellenando un cupón al que deberán adjuntar 5 sellos pertenecientes a 5 establecimientos hosteleros diferentes, y depositarlo en unas urnas que se habilitarán al efecto; al menos uno de esos sellos corresponderá a un establecimiento hostelero situado en alguno de los barrios que rodean al centro urbano. Los establecimientos pertenecientes al extrarradio se especificarán en los folletos informativos.

El fallo de la votación popular se comunicará a los establecimientos ganadores durante la entrega de premios y será publicado, tanto en el ZUIN, como en los paneles LED, Radio, Facebook, Twitter, página web del Ayto. y demás medios considerados oportunos.

**7. SARIAK/ PREMIOS:**

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

| | Epaimahai Teknikoa | Epaimahai Herretarra |
|---|---|---|
| Pintxo Librerik Onena/Mejor Pincho Libre | 1º Premio: 250€+Trofeo<br>2ºPremio:150€ + Diploma<br>3º Premio: Diploma | 1º Premio:250 € + Trofeo<br>2º Premio:150 € + Diploma<br>3º Premio: Diploma |
| Pintxoen Barrarik Onena/Mejor Barra de Pinchos (Epaimahaiaren sari berezia/ premio especial del jurado) | 1º Premio: 250€ + Trofeo | 1º Premio: 250€ + Trofeo |

Horiez gain, aurten 250 euroko saria zozkatuko da Laudioko XII. Pintxo Lehiaketako pintxorik onenak eta barrarik onenak hautatzeko bozketan parte hartzen duten pertsonen artean.

Este año también se sorteará un premio de 250 € entre la personas que participen con su voto para seleccionar los mejores pinchos y las mejores barras de pinchos de la XII. edición del Concurso de Pintxos de Laudio.

**8. SARI-BANAKETA:** Une geokian iragarriko dira sariak banatzeko eguna eta zehaztasunak. Ekitaldi publikoa izango da eta parte-hartzaile guztiak izango dira han. Martxoan izango da, Kasinoan. Parte hartu duen establezimendu bakoitzak lehiaketara aurkeztutako pintxoaren lau ale eramngo ditu ekitaldira.

Oinarri hauetako 7 idatzi-zatian aipatu diren sariak banatuko dira ekitaldian.

**8. ENTREGA DE PREMIOS:** Se anunciará la fecha y pormenores de la entrega de premios. Será una ceremonia pública a la que asistirán todos los participantes, y que tendrá lugar a finales de marzo en el Casino. Cada establecimiento hostelero participante llevará a dicha celebración cuatro muestras del pincho presentado a concurso.

Se dará entrega de los premios mencionados en el apartado 7 de estas bases.

**9. OINARRIAK EZ BETETZEA:** Lehiaketako **oinarri hauetakoren bat betetzen ez duen establezimendua lehiaketatik kanpo** geratuko da. Lehiaketaren antolatzaileak arreta zorrotza eta berariazkoa jarriko du lehiaketak dirauen egunetan eta finkatutako ordutegian parte hartzen duten pintxoak jendearen eskura egon daitezen eta argazkietan aurkeztutako pintxoak ostalaritza-establezimenduetan aurkeztutakoekin bat etor daitezen.

**9. INCUMPLIMIENTOS:** El **incumplimiento de alguna de las bases** del Concurso dará lugar a la **descalificación** del establecimiento hostelero. La organización del Concurso prestará una estricta y especial atención al hecho de que los pinchos participantes estén a disposición del público durante los días que dure el Concurso como mínimo en el horario establecido, así como, a la coincidencia entre los pinchos presentados en las fotografías y los presentados al público.

**10. INTERPRETAZIOA**: Laudio Udalak beretzat gorde du oinarriok interpretatzeko eskubidea zalantzak eragiten dituzten egoeretan. Horrelakoetan hartzen dituen erabakiak behin betikoak izango dira.

**10. INTERPRETACION**: El Ayuntamiento de Llodio se reserva el derecho de interpretar las presentes Bases ante cualquier situación que presente dudas, siendo sus decisiones en tal sentido definitivas.